

ELIZA. Bizkaiko apaizek gutuna igorri diote Espainiako Apezpikuen Batzarreko buruari

Espainiako gotzainen pastoralak ez dute bere egiten Bizkaiko 200 apaizek

Euren jarduera EAEko gotzainek iazko maiatzean eginiko pastoralean oinarrituko dutela diote

Erredakzioa | GASTEIZ

Bizkaiko 200 apaizek baino gehiagok sinatu dute Antonio Maria Rouco Varela Espainiako Apezpikuen Batzarreko presidenteari hilaren hasieran bidalitako gutuna. Idazkian gogor kritikatu dute azaroaren 22an Batzarrek onartu zuen pastoralak, eta edukiak ez dituztela bere egiten ohartarazi dute. *Terrorismoaren balorazio moralak Espainian, bere zioena eta bere ondorioena* izeneko agiriak zeresan handia eman zuen, batez ere apezpikuek nazionalismoei buruz esandakoen kariatara.

Apezpikuen Batzarreari bidalitako gutuna *Deia* egunkariak kaleratu zuen atzo. Sinatzaileek txalotu egiten dute Batzarrek ETari buruz egin zuen salaketa. Haatik, Euskal Herriko elizbarrutiek gai horretan duten jarra «garbia» bertan ez zela aipatzen nabarmendu dute. «Elizaren irakaspen zahar eta zalantzarik gabeko hori ez aipatzea arraroa, bidegabea eta komunio episkopalaren falta larria iruditzen zaigu», gutunak dioenez.

Apezpikuen pastoralak aberzetasunaren «susmoa eta kondena adierazpenak» zabalitzen dituela uste dute Bizkaiko apaizek, «eta hori Espainiako nazionalismoaren ikuspuntutik egiten da».

Espainia prozesu historiko luze eta konplexuen ondorio dela dio Espainiako apezpikuen dokumentuak. «Ez du, ordea, prozesu horien moraltasunari



ANGEL DIAZ / EFE
Goztainen Osoko Batzarra, Espainiako Gotzainen Konferentziako egoitzan.

buruz juzkurik egin», gutunak dioenez. ETaren sorrerari buruz esandakoak ere hizpide dituzte: «ETaren sorrera nazionalismo totalitarioarekin lotzen dute, baina ezer ez dute aipatzen frankismoaren tiraniak sorrera horretan duen eraginaz».

Horren haritik, «Espainiako estatuaren betiko zentralismo amorratuaz eta euskal kulturaren errepresioaz» deus ez aipatzea salatu dute 200 sinatzaileek. «Apezpikuen batzarrek inoiz ez ditu kondenatu. Hori bai, errepresio sozial eta politikoa gogorra ekarri zuen altxamendu militar bat gurutzada modura kalifikatu zuten».

ETA-REN SORRERA

«Nazionalismo totalitarioarekin lotzen dute, baina ezer ez dute aipatzen Francoren tiraniaren eraginaz»

BAKEA

«Ez die biderik erakusten bakearen artisauei, eta etsipena eta ezinegona sortu die askori»

Pastoralak «nahasmen moralak» sorrarazi duela uste dute gutunaren egileek, «jende askorentzat iluntasuna eta ezinegona ekarri baitu». Bideabar, Aita Santuak nazionalismoaz esandako hitz batzuk kentzea egotzi diete apezpikuei.

Apezpikuen pastoralak bakea lortzeko ez dela baliagarria uste dute. Bukatzeko, sinatzaileek pastoralaren juzkuei ez daudela lotuta azaldu dute, eta euskal gotzainek iazko maiatzean kaleratu zuten gutun pastoralak bere egiten dute, irizpide gisa hura erabiliko dutela gaineratuta.

LAGURAEAN

Permach bihar Auzitegi Nazionalen deklaratzera deitu du Fiskaltzak

Espainiako Auzitegi Nazionalen Fiskaltzak Joseba Permach Batasuneko mahaikidea deklaratzera deitu du biharko, inputatu bezala, 2002an egindako adierazpen batzuegatik. Jose Maria Aznar Espainiako Gobernuburuari «ipotx mentala» deitu zion Permache. «Terrorismoa bultzatzea» eta Espainiako Gobernua «iraintzea» egotzi dio fiskalak.

Gernika Deialdia plataformak deiturik, kimu landaketak izango dira gaur

Gernika Deialdia plataformak deiturik ekitaldi politikoak egingo dira gaur Saran, Amaiurren, Enkarterrietako La Arboledan, Gasteizen eta Hernanin. Zuberoako Mithikilen herenegun egin zuten bezala, Gernikako hariztetik ateratako kimu berriak landatuko dituzte gaur bost leku esanguratsu horietan.

13 zestoar epaituko dituzte etzi, presoan aldeko protesta bat egitegatik

13 zestoar epaituko dituzte etzi Donostiako Epaitegian 2001an ekainaren 2an Unai Parot euskal presoak jasandako jipoia salatzeak Zestoan egindako protesta bategatik. Zazpi lagun autobus baten gainera igo ziren eta zirkulazioa trabatu zuten. Beste seiek hurbiletik jarraitu zuten ekintza. Ertzaintzak denak atxilotu zituen. Fiskalak 10.540 eguneko kartzela zigorra eskatu du guztientzat.

SEGI. Kasu batzuk Espainiako Auzitegi Nazionalera bidali ditu Ertzaintzak

Segiren aldeko ekimenetan hainbat gazte atxilotu dituzte azken boladan

Erredakzioa | DONOSTIA

Segi gazte erakundeak atzo jakinarazi zuenez, 27 gazte identifikatu eta horietako batzuk atxilotu dituzte azken boladan, hainbat herritan talde horri buruzko kartelak eta pankartak jartzeagatik, margoketak egiteagatik eta kamisetak soinean eramateagatik. Atxiloteta gehienak Ertzaintzak egin di-

tuela eta kasu batzuetan, dilingentziak ireki ondoren, auzia Espainiako Auzitegi Nazionalera helarazi dute. Zenbait gazteri Segiko kide izatea eta terrorismoaren apologia delitua egotzi diete. Atxilotetak, Andoainen, Irunen, Arrasaten, Aretxabaletan, Donostiako Altza eta Bidebieta auzoetan, Meatzaldean, Amurion, Laudion eta Gasteizen izan dira.

Garzonek Segi legez kanpo jarri arren, Madrilgo erabakiari «muzin egitea aspaldian deliberratu» zuela gogorarazi du gazte erakundeak, eta Segiko kideak erakundearen «hausnarketak kalera ateratzen jarraitzen» dutela esan du. Bide batez, Ertzaintzaren jokaera salatu du, «eraso guztiak aurrera eraman dituelako eta akusazioak berak egin dituelako». Horrenbestez, «espainiar legeria aplikatzeko orduan» Ertzaintzak erakutsi duen «prestutasuna» nabarmendu du eta bere asmoa azaldu du gazte erakundearen «defentsa sutsua» egin segitzeko.

EUSKAL PRESOK. Manifestazioa egin dute

Gorrotxategi mahaikidea ez dute eraman amaren hileta elizkizunera

Erredakzioa | DONOSTIA

Jon Gorrotxategi, preso dagoen Batasuneko mahaikidea, ezin izan zen joan amaren hileta elizkizunera atzo, Beasainen, Espetxe Erakundeak ez zuelako «epailearen agindua bete». Epaileak agindua emana zuen Soto del Real kartzelan eta Espetxe Erakundearen preso arratsaldeko 19:00etarako

Beasainen egon zedin. Baina, arratsaldeko 17:00etan atera zuten Soto del Real espetxetik, eta, hortaz, berandu iritsi zen. Batasuneko zenbait mahaikidek Beasainen salatu zuten, «horrelako adibideek erakusten dute zer-nolako krudelkeriarekin jokatzeko duen Espetxe Erakundeak». Elizkizunen ondoren manifestazioa egin zuten.